

2025ean erregistratutako langabezia

2025ean zehar LANBIDEko bulegoetan 2.743 langabe ezberdin gutxiago erregistratu dira, eta 203.484 langabe ezberdin daude; kopuru erlatiboetan, jaitsiera %1,3koa izan da.

• SEXUA

Eskatzaile langabeen kopuruak behera egin du, bai gizonen artean, bai emakumeen artean. Lehenengoen artean %1,5 murriztu da, eta bigarrenen artean %1,2 (89.778 gizon eskatzaile urtean eta 113.706 emakume). Aurten, eskatzaile gisa erregistratutako langabeen %55,9 emakumeak dira, 2024an baino 0,1 puntu gehiago.

• ADINA

Azken urte honetan, behera egin du langabezia dauden eskatzaileen kopuruak gazteenen artean, eta gora 55 urtetik gorakoen artean. Langabeen kopurua gehien murriztu den tarte 35-44 urtekoa izan da, termino erlatiboetan (-%3,2) eta absolutuetan (-1.368 pertsona). Langabeen %46,6 44 urtetik gorakoa da, %33,1 ez da 35 urtera iristen, eta gainerako %20,4a 35 eta 44 urte bitartekoa da. Lan-merkatuan berriz sartzeko zailtasunek gora egiten dute langabeen adina handitu ahala.

• JARDUERA EKONOMIKOA

2025ean nabarmen jaitsi da Zerbitzuen sektoreko eskatzaileen kopurua, 2.106 pertsona gutxiago baitaude (-%1,4). Gainerako sektoreetan era jaitsi da: 615 pertsona gutxiago Eraikuntzan (-%5,8), 167 pertsona gutxiago Industrian (-%0,8), 138 pertsona gutxiago Lehen sektorean (-%4,3). Aurreko enplegurik gabekoen artean baino ez da igo, 337 langabe gehiagorekin (+%1,7).

Jardueraren arabera, nabarmentzekoa da azken urtean Ostalaritzan erregistratutako langabe kopuruaren jaitsiera (-1.127 pertsona, -%5,0), ondoren Eraikuntzan (-615 pertsona, -%5,8), Administrazio Publikoan (-359 pertsona, -%5,7) eta Merkataritzan (-369 pertsona, -%1,3). Igoera bakarrak Etxeetako jardueretan (+392 pertsona, +%4,8), Aurretik enplegurik gabeko pertsonen artean (+337 pertsona, +%1,7), Informazioa eta komunikazioan (+18 pertsona, +%0,4) eta Energia-horniduran (+6 pertsona, +%5,9) izan dira.

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Urte honetan, iraupen luzeko langabeen kopurua 1.375 pertsonatan murriztu da, eta iraupen laburreko langabeena 1.368 pertsonatan. Termino erlatiboetan, iraupen luzeko langabeen beherakada %2,13koa da, eta iraupen laburreko langabeena, %0,97koa.

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Azken urtean, erregistratutako langabeen kopuruak behera egin du hiru Lurralde Historikoetan: 1.560 pertsona gutxiago (-%1,37) Bizkaian, 805 gutxiago (-%1,38) Gipuzkoan eta 378 gutxiago (-%1,11) Araban.

Erregistratutako langabeen kopuruak ere behera egin du EAEko hiru hiriburuetan, batez ere Donostian (-%3,04, -417 pertsona), ondoren Bilbon (-%1,31, -497 pertsona) eta Gasteizen (-%0,99, -259 pertsona).

Eskualdeen arabera portaera nahiko desberdina da. Langabeen kopuruan beherakadarik handienak Arabako Mendialdean (-%5,7, -12 pertsona), Arabako Lautadan (-%4,63, -58 pertsona) eta Busturialdean (-%3,93, -159 pertsona) izan dira. Igoera handienak Debagoienean (+%4,17, +195 pertsona), Gorbeialdean (+%3,48, +20 pertsona) eta Arratia-Zornotzan (+%2,06, +60 pertsona) izan dira.

• LANGABEZIA - PRESTAZIOA

2025ean, Lanbiden erregistratutako 34.115 langabek, aurreko urtean baino 5.856 gutxiagok, langabezia-prestazioaren bat jaso dute. Gaur egun, 2025ko abenduan, langabe guztien %27,3k dute gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. Guztizkoaren %18,8k ordaindutakoaren araberrako prestazioa jasotzen du, eta %8,5ek langabeziagatik sorospenen bat.

Aurreko urtearekin alderatuta, langabeziagatik estaldura-tasa 4,5 puntu jaitsi da.

• IKASKETA MAILA

98.807 langabek, guztien %49k, derrigorrezko hezkuntzako ikasketak dituzte. Azken urtean, oinarrizko prestakuntza-maila hau duten langabetuak 2.295 gutxiago izan dira (-%2,27).

Batxilergoa egin duten langabeak langabetu guztien %8,6 dira. Azken urtean %2,0 jaitsi dira (-356 pertsona).

Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabetuak 56.136 dira, guztizkoaren %27,6. Aurreko urtearekin alderatuta, %0,47 jaitsi da (-264 pertsona).

Azkenik, %15,3k (31.131 pertsona) unibertsitate-ikasketak ditu. Ikasketa-maila hori duten langabeak %0,56 igo dira urtean (172 pertsona gehiago), eta profil horrek soilik egin du gora.

• JATORRIA

Langabe guztietatik, 40.026 (%19,7) atzerritarak dira. 2024arekin alderatuta, atzerritarren artean langabezia %3,3 igo da (+1.293 pertsona); bertakoen artean, berriz, %2,4 jaitsi da (-4.036 pertsona gutxiago).

Atzerriko langabeen %38,7 Latinoamerikatik datoz, %25,3 Ipar Afrikatik, %13,5 Europako Esparru Ekonomikotik, %10,3 Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta %6,1 Asiatik.

Igo da Asiatik etorritako langabeen kopurua (+%4,8, +113 pertsona) eta, batez ere, Latinoamerikatik etorritakoen kopurua (+%9,4, +1.334 pertsona). Beste eskualdeetako langabeen kopurua murriztu egin da, batez ere Europako Esparru Ekonomikoaren kasuan (-%3,75, -210 pertsona).

Lan-eskatzaile langabeak 2025ean

	2025	2024	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	89.778	91.152	-1.374	-1,51%
EMAKUMEZKOAK	113.706	115.075	-1.369	-1,19%
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	24.495	24.519	-24	-0,10%
GIZONEZKOAK	14.048	13.866	182	1,31%
EMAKUMEZKOAK	10.447	10.653	-206	-1,93%
25-44 URTE:				
GUZTIRA	84.249	86.174	-1.925	-2,23%
GIZONEZKOAK	35.422	36.573	-1.151	-3,15%
EMAKUMEZKOAK	48.827	49.601	-774	-1,56%
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	94.740	95.534	-794	-0,83%
GIZONEZKOAK	40.308	40.713	-405	-0,99%
EMAKUMEZKOAK	54.432	54.821	-389	-0,71%
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	3.039	3.177	-138	-4,34%
INDUSTRIA	10.010	10.625	-615	-5,79%
ERAIKUNTZA	19.606	19.773	-167	-0,84%
ZERBITZUAK	150.558	152.718	-2.160	-1,41%
AURREKO ENPLEGURIK GABE	20.271	19.934	337	1,69%
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	33.737	34.115	-378	-1,11%
GIPUZKOA	57.363	58.168	-805	-1,38%
BIZKAIA	112.384	113.944	-1.560	-1,37%
EAE	203.484	206.227	-2.743	-1,33%